

## **IBILTUR Aisia 2019.– Euskadira aisia- arrazoiengatik etortzen diren turisten profila eta portaera**

2020ko ekaina – Euskadira etortzen diren turista seniorren  
analisi konparatiboa

## **IBILTUR Ocio 2019- Conocimiento del perfil y comportamiento de las y los turistas que visitan Euskadi por motivaciones de ocio**

Junio 2020 – Análisis comparativo de las y los turistas  
sénior que visitan Euskadi

## EZAUGARRIAK

**Lanaren zuzendaritza:**

IKERTALDE aholkularitza-taldeak egindako lana

**Talde idazlaria:**

Yolanda García Díez (proiektuaren zuzendaria)  
Julio A. Jiménez Arévalo eta Kepa Salaverria  
Folgado (analisi estatistikoko aholkulariak)

**Sortze-data:**

2020ko ekaina

**Bertsioa**

1

**Iruzkinek**

## CARACTERÍSTICAS

**Dirección del trabajo:**

Trabajo realizado por IKERTALDE grupo consultor

**Equipo redactor:**

Yolanda García Díez (Directora del proyecto)  
Julio A. Jiménez Arévalo y Kepa Salaverria Folgado  
(Consultores en análisis estadístico)

**Fecha de creación:**

Junio 2020

**Versión**

1

**Comentarios**

## Aurkibidea

<b>ONDORIOAK</b> .....	<b>4</b>
<b>AISIA-TURISMORAKO ERREFERENTZIA- ESPARRUA</b> .....	<b>5</b>
<b>1.- EUSKADIRA AISIA-ARRAZOIENGATIK ETORTZEN DIREN TURISTEN PORTAERAREN GAKOAK</b> .....	<b>8</b>
1.1.- Zerk erakartzen dituen Euskadira aisia- turistak, zein den beraien Euskadiko helmuga eta non hartzen duten ostatu .....	8
1.2.- Aisia-turista seniorren profila .....	11
1.3.- Nola jasotzen duten informazioa, zer garraibide erabiltzen duten, non hartzen duten ostatu, eta zenbat eguneko egonaldia egiten duten .....	12
<b>2.- TURISTA SENIORREK EUSKADIN EGIN DITUZTEN JARDUERAK ETA BISITATU DITUZTEN LEKUAK</b> .....	<b>19</b>
2.1.- 50 eta 59 urte bitarteko turistek egiten dituzten jarduerak eta txangoak, eta bisitatzen dituzten lekuak .....	20
2.2.- 60 urteko eta gehiagoko turistek egiten dituzten jarduerak eta txangoak, eta bisitatzen dituzten lekuak .....	23
<b>3.- EUSKADIRI BURUZKO BALORAZIOAREN ADIERAZLE TURISTIKOAK ETA AURREIKUSPENAK</b> .....	<b>27</b>
3.1.- Nola baloratzen dute Euskadi? .....	27
3.2.- Itzuliko lirateke Euskadira? .....	28
3.3.- Zein helmuga dira lehiakideak? .....	29
<b>4.- EGITEN DUTEN GASTUA</b> .....	<b>31</b>
4.1.- Gastu osoa eta eragin ekonomikoa ....	31
4.2.- Euskadin egindako gastua .....	32
<b>FITXA TEKNIKOA</b> .....	<b>35</b>

## Índice

<b>CONCLUSIONES</b> .....	<b>4</b>
<b>MARCO DE REFERENCIA PARA EL TURISMO DE OCIO</b> .....	<b>5</b>
<b>1.- CLAVES DEL COMPORTAMIENTO DE LAS Y LOS TURISTAS QUE VISITAN EUSKADI POR MOTIVACIONES DE OCIO</b> .....	<b>8</b>
1.1.- Qué atrae a las y los turistas sénior de ocio a Euskadi, cuál es el destino de su viaje en Euskadi y dónde residen .....	8
1.2.- Perfil de las y los turistas sénior de ocio .....	11
1.3.- Cómo se informan, qué medios de transporte utilizan, dónde se alojan y cuántos días dura su estancia .....	12
<b>2.- ACTIVIDADES PRACTICADAS Y LUGARES VISITADOS POR LAS Y LOS TURISTAS SÉNIOR EN EUSKADI</b> .....	<b>19</b>
2.1.- Actividades, lugares y excursiones realizadas por las y los turistas de 50 a 59 años .....	20
2.2.- Actividades, lugares y excursiones realizadas por las y los turistas de 60 y más años .....	23
<b>3.- INDICADORES TURÍSTICOS SOBRE LA VALORACIÓN DE EUSKADI Y EXPECTATIVAS</b> .....	<b>27</b>
3.1.- ¿Cómo valoran Euskadi? .....	27
3.2.- ¿Volverían a Euskadi? .....	28
3.3.- ¿Cuáles son los destinos competencia? .....	29
<b>4.- EL GASTO QUE REALIZAN</b> .....	<b>31</b>
4.1.- Gasto total e impacto económico .....	31
4.2.- Gasto realizado en Euskadi.....	32
<b>FICHA TÉCNICA</b> .....	<b>35</b>

## ONDORIOAK

- Askotarikoak dira turista seniorrek Euskadira etortzeko dituzten arrazoiak. **Eta, aisia-turista orokorrekin gertatzen den bezala, askotariko arrazoi nagusi horiekin batera hainbat arrazoi osagarri daude.**
- Aisialdiko turista orokorrekin alderatuta, **turista seniorrek garrantzi handiagoa ematen diete kultura-ekitaldiei eta hiriko turismoari**, eta txikiagoa, landa-inguruneari eta naturari, hau da, turismo aktiboa deritzonari. Hala ere, nahiko txikiak dira ezberdintasunak.
- Helmuga turistikoari erreparatuta, **barnealdeko eremuak dira turista seniorren helmuga nagusiak.**
- Turista horiek **ez dira sasoikoak**, eta **gutxi etortzen dira Gabonetan.**
- Horrelako turistek **bikotean** edo antzeko adineko pertsoez osatutako taldeetan bidaiatzen dute.
- Pertsona hurbilak eta onlineko iturriak erreferentzia garrantzitsuak dira haientzat bidaiatzeko erabakia hartzerakoan, baina gainerako turistentzat baino neurri txikiagoan. **Turista seniorrak izaten dituzte helburu bidaia-agentziek, turismo-azokek, eskaintza bidezko sustapenek, eta, batez ere, artikulua eta erreportaje turistikoak.**
- Turista seniorrek, batez ere 60 urtetik gorakoek, **garraio kolektiboa erabiltzeko joera handiagoa dute.** Alde batetik, nagusi izaten direlako distantzia luzeko nazioarteko turismo-merkatuan, eta bestetik, maizago erabiltzen dituztelako trena eta autobusa. Azken garraio bide horren erabilera handiagoak zerikusia du antolatutako bidaia kolektiboekin.
- Turista horiek **hotela lehenesten dute** beren egonaldietarako ostatu hartzeko. Era berean, **errepideko turismoa hobesten dute**, betiere aisialdiko turista orokorren ardatz berberetan: Frantzia, Madril edo Katalunia.
- Turisten batezbestekoak baino joera txikiagoa dute informazioa helmugan bilatzeko, batez ere onlineko bitartekoen bidez, baina baita turismo-informazioko bulego edo establezimenduen bidez ere.
- Bestalde, **eragin ekonomiko handiko turistak** dira. Honako hauek dira eragin ekonomiko handiagoaren arrazoiak, batez ere 60 urtetik gorako turisten artean: egonaldi luzeagoak eta batez besteko gastu handiagoak, bai jardueretan bai erosketetan, nahiz eta jarduerak erosten edo kontratatzen dituzten turista seniorren ehunekoa batezbestekoa baino txikiagoa izan.

## CONCLUSIONES

- Las motivaciones de las y los turistas sénior son muy diversas. **Al igual que en el caso de las y los turistas de ocio en general, la diversidad de motivaciones principales viene acompañada por una inmersión en una multiplicidad de motivaciones complementarias.**
- A diferencia del turismo de ocio en general, **el sénior pone algo de énfasis en los eventos culturales y el turismo de ciudad**, a cambio de cierta orientación hacia lo rural y hacia la naturaleza, particularmente entendida como turismo activo. Las diferencias son poco acusadas, no obstante.
- Por destinos turísticos, la principal ganancia con el **turismo sénior la reciben las zonas de interior.**
- Es una tipología de turista **poco estacionalizada, y de escasa implantación durante la Navidad.**
- Los viajes de este colectivo se dan **en pareja**, o bien en grupos de edad similar.
- Personas cercanas, y fuentes on-line son relevantes en la determinación de sus viajes, pero en menor medida que para el resto de las y los turistas. **Son objetivo claro para agencias de viaje, ferias, captaciones por oferta y, sobre todo, artículos y reportajes turísticos.**
- Los y las turistas sénior, a partir de los 60 años especialmente, están **más orientadas al transporte colectivo.** En parte por su mayor preponderancia entre el mercado internacional de larga distancia, pero también es una persona usuaria más frecuente del tren y el autobús. En este último caso, este mayor uso viene dado por los viajes colectivos organizados.
- Es una clase de turista con **orientación absoluta al hotel** como alojamiento para sus estancias. Y también ligeramente **con mayor orientación al turismo en ruta**, dentro de los mismos ejes que las y los turistas de ocio en general: Francia – Madrid o Cataluña.
- Es un grupo **menos tendente que el medio a buscar información en destino**, particularmente a través de medios on-line, pero también en el establecimiento o en las oficinas de información turística.
- Se trata de una clase de **turista de fuerte impacto económico.** Especialmente entre los de edades superior a 60 años, *la combinación entre estancias superiores, mayor gasto medio en actividades y mayor gasto medio en compras determina un impacto global superior*, aun cuando quienes compran o contratan actividades sean un porcentaje inferior al medio.

## AISIA-TURISMORAKO ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Eskariaren ikuspegitik aztertutako Euskadiko aisia-turismoaren ezagutzan murgildu aurretik, azaldu egin beharko dugu, labur bada ere, inkestetako datuak ateratzeko erabili dugun **erreferentzia-esparrua** eratzeko prozesua.

Eta erreferentzia-esparru hori aurkeztu aurretik, laginetako informazioa biltzeko prozesua finkatzeko faktore metodologiko nagusiak azaltzea komeni da.

**Urteko sasoiaren arabera** (Gabonak, Aste Santua, uda eta urteko gainerako denbora hartu dira aintzat), eta **gaua emateko lekuren arabera** (Gasteiz, Bilbo, Donostia, Euskadiko Kostaldea, Arabako Errioxa eta Euskadiko Barnealdea bereizi dira) banatu dira laginak, batean nahiz bestean informazioa biltzeko **ostatu-mota** desberdinen arabera (hotel-establezimenduak, kategoria edozein dela ere; landa-ostatuak; kanpinak eta apartamentu turistikoak). Laginaren diseinuan ezin izan da a priori turisten **bizilekua** erabili, baina informazio hori zuzenean erabili da datuak neurtzeko, erreferentziako unibertsoaren zenbatespena oinarri hartuta.

Informazioa 2019an zehar bildu da. Aipatu bezala,aldi horretan hiru informazio-bilketa egin dira paraleloan, bakoitza helburu jakin batekin:

- **Turisten unibertsioa berriro zenbatestea (kopurua).** Asmoa: bidaia egiteko arrazoiaren arabera zenbatestea Euskadira bisitan etortzen diren turisten unibertsoa.
- **Aisialdiari buruzko inkestak.** Asmoa: Euskadira aisialdian etortzen diren turistak ezaugarritzea eta tipifikatzea.
- **Gastuari buruzko inkesta.** Asmoa: turistek bidaiaren (bidaiaren arlo guztietan) egiten duten gastua zehazteko informazioa biltzea.

Turisten kopurua zehazteko, hotel-establezimenduetan ostatu hartzen duten pertsonak zenbatu dira, bidaiaren arrazoia edozein izanda ere. Aisialdiari eta gastuari buruzko inkestei dagokienean, berriz, Euskadira honako arrazoi hauengatik etorri diren pertsonak hartu dira aintzat: aisiagatik, oporretan, arrazoi erlijiosoengatik, borondatezko osasun-tratamenduak egiteko, familiakoak eta lagunak bisitatzeko edo erosketak egiteko.<sup>1</sup>

## MARCO DE REFERENCIA PARA EL TURISMO DE OCIO

Antes de pasar a profundizar en el **conocimiento del turismo de ocio en Euskadi desde la perspectiva de la demanda**, conviene detenerse y exponer, aunque sea someramente, el proceso según el cual se ha conformado el **marco de referencia** que se ha utilizado para inferir los datos de las encuestas.

Y antes de presentar ese marco referencial es importante avanzar los principales factores metodológicos que han determinado el proceso de recogida de la información muestral:

*El diseño muestral ha repartido el número de encuestas a realizar por **periodos temporales** en el año (Navidad, Semana Santa, verano y resto del año), en cada **destino de pernoctación** (Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Donostia/San Sebastián, Costa Vasca, Rioja Alavesa, Interior) según los distintos **tipos de alojamiento** (establecimientos hoteleros de todas las categorías, alojamientos rurales, camping y apartamentos turísticos) previstos donde se han llevado a cabo la recogida de información. El **lugar de residencia** de las y los turistas no se puede utilizar a priori en el diseño muestral, pero sí ha intervenido directamente en la calibración de los datos a partir de la estimación del universo de referencia.*

*El periodo de recogida de información se ha desarrollado a lo largo del año 2019 a través de tres capturas de información en paralelo cada una con sus propios objetivos:*

- **Reestimación del universo de turistas (aforo).** Cuyo objetivo es disponer de datos con los que poder estimar el universo de turistas que visitan Euskadi según la motivación del viaje.
- **Encuestas de ocio.** Con el objeto básico de caracterizar y tipificar a las y los turistas que visitan Euskadi por motivos de ocio.
- **Encuesta de gasto.** Su objetivo es disponer de información suficiente para determinar, a diferentes niveles, el gasto que las y los turistas objetivo realizan en su viaje.

*El aforo de turistas se ha llevado a cabo entre las personas alojadas en los establecimientos independientemente del motivo de su viaje. Sin embargo, tanto la encuesta de ocio como la de gasto, sólo se ha aplicado a aquellas personas alojadas cuya motivación principal para visitar Euskadi hubiese sido: ocio, recreo, vacaciones, motivos religiosos, tratamientos voluntarios de salud, visita a familiares y amistades y compras.<sup>2</sup>*

<sup>1</sup> Beste modu batean esanda, azterketa honetatik kanpo gelditu dira Euskadira lanagatik, negozioengatik, azoketara, kongresuetara, ikastera, erosketak egitera, zerbitzu pertsonalen bila... etortzen direnak.

<sup>2</sup> Dicho de otra forma, quedan fuera del objetivo de este estudio las y los turistas que visitan Euskadi por motivo de trabajo, negocios, asistencia a ferias, congresos, ... o por estudios (u razones académicas).

Euskadiko turismoaren berri ematen duten estatistika ofizialek ez dituzte turistak arrazoiaren arabera bereizten. Eta, adierazi dugun bezala, lan honetan ezinbestekoa da aisialdian etortzen direnak kuantifikatzea.

**EUSTATEk**, Euskal Estatistika Institutuak, Euskadin gaua ematen duten turista-kopuruari buruzko datuak argitaratzen ditu *Turismo-establezimendu hartzaileen inkestaren*<sup>3</sup> bidez. Hona hemen landa-lana egin den aldian (2019an) EUSTATEk eman duen datua:

- ✓ **3.184.900 turistak** eman dute gaua hotel-establezimenduetan.
- ✓ **167.077 turistak** eman dute gaua landetxeetan eta nekazaritza-turismoko establezimenduetan.
- ✓ **89.986 turistak** eman dute gaua apartamentu turistikoetan.

Kanpinetako okupazioari buruzko informazioa eskuratzeko, Estatistikako Institutu Nazionalera (**EIN**) jo dugu, *Kanpinetako okupazioaren estatistika* azterlanean argitaratutako datuen bila.

- ✓ **269.531 turistak** eman dute gaua kanpinetan.

Turista-bolumen hori izan da landa-lanean bildutako informazioa ebazteko hasierako erreferentzia.

Prozesu honen emaitza honakoa izan da:

Las estadísticas oficiales que informan sobre el turismo en Euskadi, al proporcionar datos sobre las y los turistas no diferencian entre quienes visitan el destino en función de sus distintas motivaciones. Y, como ya se ha adelantado, en el marco de esta operación, es necesario cuantificar quienes lo hacen por ocio.

**EUSTAT**, el Instituto Vasco de Estadística, a través de la *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores*<sup>4</sup>, publica datos sobre el número de turistas que pernoctan en Euskadi. En concreto, en el periodo en el que queda establecido el trabajo de campo (año 2019) este dato ha sido:

- ✓ **3.184.900 turistas** que pernoctan en establecimientos hoteleros.
- ✓ **167.077 turistas** que pernoctan en agroturismos o casas rurales.
- ✓ **89.986 turistas** que se alojan en apartamentos turísticos.

Para disponer de información sobre la ocupación en camping se acude al *Instituto Nacional de Estadística (INE)*, a los datos publicados sobre la *Encuesta de Ocupación en Camping*:

- ✓ **269.531 turistas** que pernoctan en camping.

Este volumen de turistas ha constituido la referencia inicial a la que elevar la información recogida en campo.

El resultado de este proceso ha sido:

EUSKADIRA ETORTZEKO ARRAZOI NAGUSIA MOTIVO PRINCIPAL DEL VIAJE POR EUSKADI	GUZTIRA TOTAL		ESTABLEZIMENDU-MOTA TIPO DE ESTABLECIMIENTO							
			Hotelak Hoteles		Landa-ostatuak Alojamientos rurales		Kanpinak Camping		Apartamentu turistikoak Apartamentos turísticos	
<b>KOPURUA / Nº CASOS</b>	<b>3.711.494</b>	<b>100%</b>	<b>3.184.900</b>	<b>100%</b>	<b>167.077</b>	<b>100%</b>	<b>269.531</b>	<b>100%</b>	<b>89.986</b>	<b>100%</b>
<b>Lana, negozioak orokorrean</b> Trabajo, negocios en general	446.494	12,0%	419.071	13,2%	15.885	9,5%	929	0,3%	10.609	11,8%
<b>Azoketara joatea</b> Asistencia a ferias	7.282	0,2%	7.282	0,2%						
<b>Biltzar, konbentzio eta jardunaldietara joatea</b> Asistencia a congresos, convenciones, jornadas	38.123	1,0%	37.839	1,2%					284	0,3%
<b>Hezkuntza eta prestakuntza</b> Educación y formación	20.604	0,6%	19.523	0,6%	200	0,1%	160	0,1%	720	0,8%
<b>Erosketak</b> Compras	527	0,0%	527	0,0%						
<b>Senideak eta lagunak bisitatzeko</b> Visita a familiares y amistades	112.394	3,0%	99.185	3,1%	11.007	6,6%			2.202	2,4%
<b>Osasuna eta arreta medikoa</b> Salud y atención médica	28.364	0,8%	28.364	0,9%						
<b>Erlijioa, erromesaldiak</b> Religión, peregrinaciones	23.949	0,6%	23.015	0,7%	547	0,3%	143	0,1%	245	0,3%
<b>Oporrak eta aisialdia</b> Vacaciones, recreo y ocio	2.920.229	78,7%	2.439.637	76,6%	138.589	82,9%	267.474	99,2%	74.529	82,8%
<b>Zirkulazioa</b> Tránsito	97.369	2,6%	95.241	3,0%	602	0,4%	742	0,3%	783	0,9%
<b>Beste arrazoi batzuk</b> Otros motivos	16.159	0,4%	15.217	0,5%	247	0,1%	83	0,0%	613	0,7%

<sup>3</sup> Turismo-establezimendu hartzaileen inkestak hotel-establezimenduen (hotelen eta ostatuak) eta landa-ostatuak (nekazaritza-etxeen eta landetxeen) okupazioari buruzko informazio estatistikoa ematen du.

<sup>4</sup> La *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores* ofrece información estadística relativa a la ocupación de los establecimientos hoteleros (hoteles y pensiones) y de los alojamientos rurales (agroturismos y casas rurales).

Helmuga batera joaten diren turistaren motibazio nagusiak bi izan ohi dira: **aisia** (atsedena edo dibertsioa beste jarduerak batzuekin lotzen duena, esaterako, erosketak, inguruko pertsonak bisitatzeko, erlijioa edo osasuna) edo **lana** (lanarekin zerikusia duten jarduerak, azokak eta kongresuak...). Beraz, *aisia-arrazoia dira Euskadi bisitatzeko duten turistaren % 83ren motibazio nagusiak.*

Azken buruan, ondoriozta daiteke **aisialdian etorritako 3.085.463 turistak**<sup>5</sup> osatzen dutela inkestaren datuak ebatzeko erreferentzia-esparrua. Honela banatzen dira establezimendu-motaren arabera:

- ✓ **2.590.727 aisia-turistak** hotel-establezimenduetan ematen dute gaua.
- ✓ **150.142 aisia-turistak** nekazaritza-establezimenduetan eta landetxeetan ematen dute gaua.
- ✓ **267.617 aisia-turistak** kanpinetan ematen dute gaua.
- ✓ **76.977 aisia-turistak** apartamentu turistikoetan ematen dute gaua.

Turista guztien inguruko aurreko esparrura itzulita (bidaiaren arrazoia aintzat hartu gabe), ikerlan honen xede diren **turista seniorrek** bidaiatzeko dituzten arrazoia aztertzen baditugu, alderdi garrantzitsu batzuk ondorioztatuko ditugu, turista horien kolektiboa osatzen duten bi adin-tarteetan. Hala, 50 eta 59 urte bitarteko turistaren artean, lanak eragindako bidaiak guztien % 12 dira, eta 60 urteko edo gehiagoko turistaren artean % 3 besterik ez dira. Bestalde, borondatezko osasun-tratamenduek eragindako bidaiak nolabaiteko garrantzia dute 60 urtetik gorako turistaren artean, bidaiak guztien % 3 baitira, baina % 0,2 besterik ez Euskadira etortzen diren gainerako turistaren artean.


Los y las turistas que se desplazan a un destino lo hacen por dos motivaciones principales: **ocio** (que agrupa el propio descanso o diversión con otras actividades como compras, visitas a personas cercanas, religión y salud) o **trabajo** (actividades relacionadas con el trabajo, ferias y congresos...). *Las motivaciones de ocio, por tanto, suponen el 83% del total de turistas que visita Euskadi.*

En definitiva, se puede concluir que el marco de referencia del estudio al que se elevan los datos de las distintas encuestas queda establecido por **3.085.463 turistas de ocio**<sup>6</sup>, según la siguiente distribución por tipo de establecimiento:

- ✓ **2.590.727 turistas de ocio** que pernoctan en establecimientos hoteleros.
- ✓ **150.142 turistas de ocio** que pernoctan en agroturismos o casas rurales.
- ✓ **267.617 turistas de ocio** que pernoctan en camping.
- ✓ **76.977 turistas de ocio** que pernoctan en apartamentos turísticos.

Volviendo al marco previo del total de turistas (independientemente del motivo del viaje), un análisis de los distintos motivos del viaje centrado en el colectivo de las y los **turistas sénior**, del que es objeto este documento, permite destacar algunos aspectos importantes, considerando los dos tramos de edad que lo conforman. Entre las personas con edades comprendidas entre los 50 y los 59 años, los viajes motivados por el trabajo representan un 12% del total, mientras que apenas superan el 3% entre quienes tienen 60 y más años. Sin embargo, los viajes motivados por tratamientos de salud voluntarios adquieren cierta relevancia entre estos últimos (3%) respecto al resto de turistas sénior que visitan Euskadi (0,2%).

0S grafikoa. Turista seniorren banaketa, Euskadira etortzeko arrazoi nagusiaren arabera (2019)  
Gráfico 0S. Distribución de las y los turistas sénior por motivo principal de la visita a Euskadi, 2019



<sup>5</sup> Aisia-turistak esan arren, bertan sartzen dira arrazoi erlijiosoen edo borondatezko osasun-tratamenduek bultzatuta etorri direnak ere.

<sup>6</sup> Aunque se denominen turistas de ocio, se incluyen también a quienes visitan Euskadi por motivos religiosos o por tratamientos voluntarios de salud.


## 1.- EUSKADIRA AISIA-ARRAZOIENGATIK ETORTZEN DIREN TURISTEN PORTAERAREN GAKOAK

Aurretik esan dugunez, Euskadiko aisialdiko turismoaren eskariaren segmentazioa aztertuko dugu ikerlan honetan, turisten adinari erreparatuta eta turista seniorrak ardatz hartuta. Honako hau da helburua: Euskadira etortzen diren turistak sakonago ezagutzea, bi motatako turista senior bereizita: 50 eta 59 urte bitartekoak, batetik, eta adin horretatik gorakoak, bestetik.

Horretarako, lehenik eta behin, jakin behar dugu zenbat turista hartzen dituen merkatu horietako bakoitzak. Euskadira aisia-arrazoiengatik etortzen diren turista guztien % 47, oro har, turista seniorra da, eta horietatik % 30 inguru 59 urtetik gorako turista da.

1S grafikoa. Euskadira etortzen diren turista seniorren kopurua eta banaketa (2019)

Gráfico 1S. Número y distribución de las y los turistas sénior que visitan Euskadi, 2019



### 1.1.- Zerk erakartzen dituen Euskadira aisia-turistak, zein den beraien Euskadiko helmuga eta non hartzen duten ostatu

#### Euskadi helmuga turistiko gisa aukeratzeko arrazoiak.

Turistek bidaia bat egiteko dituzten arrazoiak eragina izaten dute haien gainerako erabakietan, hala nola helmuga turistikoa aukeratzeko erabakian. Normalean, arrazoiak ez dira bakarrik izaten, baina lotura estua duten elkarren artean, eta askotariko jokabideak erakusten dituzte, turisten adinaren arabera. Hala, Euskadira etortzen diren turisten kasuan, funtsezko arrazoiak izaten dira gastronomiarekin eta ardoarekin lotutakoak, alde batetik, eta hiri-turismoarekin lotutakoak, bestetik. Arrazoi horiek eragin handia dute bidaiaren inguruko erabaki guztietan, neurri handiagoan edo txikiagoan, adin guztietako turistentzat.

Zehaztu beharra dago, halere, 60 urtetik gorako turistek joera txikiagoa dutela landa-, natura- eta abentura-turismorako, eta interes handiagoa dutela kultura-turismoan eta touringean.

## 1.- CLAVES DEL COMPORTAMIENTO DE LAS Y LOS TURISTAS QUE VISITAN EUSKADI POR MOTIVACIONES DE OCIO

Como ya se ha dejado explícito, este documento va a analizar la segmentación de la demanda turística de ocio en Euskadi a partir de la edad de las y los turistas centrándose en su carácter o no de turista sénior. El fin no es otro que profundizar en el conocimiento de quienes visitan Euskadi distinguiendo principalmente dos tipos de turista sénior: quienes tienen edades comprendidas entre los 50 y los 59 años y quienes superan esta edad.

Para ello, es fundamental dimensionar, en primer lugar, el número de turistas que concentra cada uno de estos mercados. El turismo sénior, conjuntamente, representa el 47% del total de turistas que visitan Euskadi por motivos de ocio (concretamente, el turismo sénior mayor de 59 años supone el 30%).

### 1.1.- Qué atrae a las y los turistas sénior de ocio a Euskadi, cuál es el destino de su viaje en Euskadi y dónde residen


#### Motivaciones a la hora de elegir Euskadi como destino turístico

Las motivaciones que llevan a las y los turistas a realizar un viaje repercuten en sus decisiones y son las que finalmente determinan el destino turístico al que la persona acude. Normalmente, estas motivaciones no son únicas, pero sí guardan una estrecha relación entre ellas y revelan diversos comportamientos que varían en función de la edad de las y los turistas. En el caso de Euskadi, los motivos relacionados con la gastronomía y el vino y el turismo urbano son claves e influyen en todas las decisiones de viaje y afectan, en mayor o menor medida, a todas y todos los turistas independientemente de su edad.

Conviene matizar que hay una tendencia menor por parte de las y los turistas de 60 y más años a sentirse atraídos por motivaciones de turismo rural y de naturaleza y aventura frente a un mayor interés por el turismo cultural y el touring.



2S. grafikoa. Turista seniorren bidaien arrazoi nagusiak (2019)  
 Gráfico 2S. Motivo principal del viaje de las y los turistas sénior, 2019




Euskadiko helmuga turistikoak

Bilbo eta Euskadiko barnealdea dira helmuga nagusiak 59 urtetik gorako turistentzat, eta Donostia nabarmentzen da 50 eta 59 urte bitarteko turistentzat.

Destinos turísticos de Euskadi

Bilbao y el interior de Euskadi son los destinos principales donde pernoctan las y los turistas mayores de 59 años; mientras que destaca Donostia / San Sebastián entre las y los turistas con edades comprendidas entre los 50 y 59 años.

3S grafikoa. Turista seniorren banaketa, helmuga turistikoaren arabera (2019)  
 Gráfico 3S. Distribución de las y los turistas sénior por destinos turísticos, 2019



## Turista seniorren jatorria

Euskadira etortzen diren turista seniorren jatorriak zenbait ñabardura ditu, ezarritako adin-tarteen arabekoak. Hala, 59 urtetik gorako turisten % 50 estatukoa da, eta beste % 50, nazioartekoa. Aldiz, 50 eta 59 urte bitarteko turisten % 57 estatukoa da. 59 urtetik gorako turista seniorren artean presentzia handiagoa dute nagusiak ez diren nazioarteko merkatuetatik datozen turistek, eta 50 eta 59 urte bitarteko turista seniorren artean, berriz, estatuko merkatu ez-tradizionaletatik datozenek.

## El origen de las y los turistas sénior

La procedencia de las y los turistas sénior que visitan Euskadi, ofrece algunos matices en función de los diferentes estratos de edad establecidos. Así, quienes tienen más de 59 años se reparten equitativamente entre procedencias estatales (50%) e internacionales (50%). Quienes se agrupan entre 50 y 59 años, ofrecen un carácter más estatal (57%). Tienen mayor presencia las y los turistas procedentes de los mercados internacionales no principales entre el turismo mayor de 59 años y, casi en la misma proporción, las y los residentes en mercados estatales no tradicionales entre el turismo sénior del tramo más joven del colectivo.

### 1S taula. Turista seniorren bizilekua (2019)

Tabla 1S. Lugares de residencia de las y los turistas sénior, 2019

Jatorrizko merkatu nagusiak Mercados Principales de Origen	Guztira   Total	50-59 urte   De 50 a 59 años	60 urte eta gehiago   60 y más años
Gainerako aut. erk.   Resto CC.AA.	16,0	16,4	12,3
Atzerriko gainerako herrialdeak   Resto países extranjeros	14,6	15,9	16,5
Madrilgo aut. erk.   C.A. Madrid	12,1	11,9	9,7
Euskadi	10,6	10,3	11,1
Katalunia   Cataluña	9,2	9,4	8,5
Frantzia   Francia	9,0	8,4	8,1
Aldameneko aut. Erk   CC. AA. vecinas	5,9	5,9	3,7
Alemania	4,4	5,8	4,9
Britainia Handia   Gran Bretaña	4,2	3,4	5,7
AEB   EEUU	4,0	4,4	5,6
Benelux	4,0	2,9	6,2
Andaluzia   Andalucía	3,5	3,3	4,9
Italia	2,5	1,9	2,8

## Euskadi bisitatzeko sasoiak

Euskadiko turismoaren sasoiotasuna neurtzeko xedez, urteko lau sasoi ezarri dira: Gabonak, Aste Santua, uda eta gainerako urtea.

Ildo horretan, turisten adina alde batera utzita, urte osoan zehar etortzen dira turistak Euskadira, batez ere opor-denboraldi tradizionaletatik kanpo (hau da, gainerako urtean).

Turismo seniorrari dagokionez, 59 urtetik gorako turisten % 54 opor-denboralditik kanpoko hiletan etortzen da. 50 eta 59 urte bitarteko turisten artean, berriz, % 37 udan etortzen da, eta % 12, Gabonetan; hau da, bi sasoi horiek nolabaitko nabaritasuna dute turista seniorren batezbestekoarekin alderatuta.

## Las temporadas en las que visitan Euskadi


Con el objetivo de observar la estacionalidad del turismo en Euskadi, se han establecido cuatro periodos al año: Navidad, Semana Santa, verano y el resto del año.

Lo primero que hay que señalar a este respecto es que, independientemente de la edad de las y los turistas, el turismo en Euskadi está presente a lo largo de todo el año sobre todo fuera de los periodos vacacionales tradicionales (resto del año).

Ahora bien, desde la óptica del turismo sénior, casi el 54% de los más mayores se decantan por los meses fuera de las temporadas tradicionales. Y entre las personas de 50 a 59 años, tiene cierta relevancia el verano (37%) y, en cierto modo, la Navidad (12%), en comparación con la media.

### 4S grafikoa. Turista seniorrak Euskadira etortzeko sasoiak (2019)

Gráfico 4S. Temporada de la estancia en Euskadi de las y los turistas sénior, 2019



## 1.2.- Aisia-turista seniorren profila

### Nolakoak dira Euskadira etortzen diren turistak?

Turisten profil demografikoaren osagaien artean, adina da haien portaera ulertzen laguntzen diguten funtsezko ezaugarrietako bat.

Hala, 50 eta 59 urte bitarteko turista seniorren batez besteko adina 54 urtekoa da, eta 59 urtetik gorakoen artean, batez besteko adina 68 urtetik gorakoa da. Horren ondorioz, lehen taldeko (50 eta 59 urte bitarteko) turisten % 89 lanean dago, eta bigarren taldeko (59 urtetik gorako) turisten % 80 erretiratu da.


Ikuspegi subjektibo batetik, 50 eta 59 urte bitarteko turista gehienek errenta ertaineko mailan kokatzen dute beren burua; 59 urtetik gorakoen artean, berriz, ehuneko handi batek (% 23k) errenta handia duela dio bere egoera ekonomiko pertsonala adierazteko.

Bestalde, **unibertsitateko edo goi-mailako ikasketak** nagusi dira adiz gutzietako turista seniorren artean.

60 urtetik beherako turista seniorren % 8k turismo familiarra egiten du, hau da, adin txikikoekin bidaiatzen du; 59 urtetik gorakoen artean, berriz, ehuneko hori % 1 baino pixka bat handiagoa da.

5S grafikoa. Euskadira etortzen diren turista seniorren batez besteko adina (2019)

Gráfico 5S. Edad media de las y los turistas sénior que visitan Euskadi, 2019



### Norekin bidaiatzen dute?

Turistek norekin bidaiatzen duten aztertzea da haien profila, arrazoiak eta portaerak ulertzeko kontuan hartu beharreko beste adierazleetako bat.

Ildo horretan, turista seniorren erdiak baino gehiago bikotearekin etortzen dira Euskadira. Horrez gain, 59 urtetik gorakoen artean azpimarratzekoa da helduez osatutako talde-bidaien kopuru handia (% 33), eta heldu, haur eta gazteez osatutako taldeen kopuru txikia. Bidaia-taldeek batez beste 4 lagun izaten dituzte (50 eta 59 urte bitarteko turisten taldeek baino lagun bat gehiago).

## 1.2.- Perfil de las y los turistas sénior de ocio

### Como son quienes visitan Euskadi

La edad de las y los turistas es uno de los componentes del perfil demográfico determinante a la hora de entender su comportamiento.

La media de edad del turismo sénior de entre 50 y 59 años se sitúa en 54 años, en tanto que la de los y las mayores de 59 supera los 68 años. Situación que explica que más del 89% de las y los primeros se encuentren trabajando y el 80% de quienes tienen más de 59 años estén en condición de jubilación o retiro.

Las y los turistas de entre 50 y 59 años se clasifican, desde un punto de vista subjetivo, en mayor medida en un nivel de renta media, siendo destacable número de personas para las que la renta alta responde mejor a su situación económica personal entre las y los mayores de 59 años (23%).

El nivel de **estudios universitarios o superiores** es mayoritario entre las y los turistas sénior independientemente de su edad.


El turismo familiar, entendiendo como tal aquel en que las y los turistas viajan acompañados de menores, tiene una implantación del 8% entre los menores de 60 años y tan sólo de algo más del 1% entre quienes superan los 59 años.

### Con quien comparten su viaje

Otro de los condicionantes a la hora de analizar el perfil de las y los turistas, sus motivaciones y sus comportamientos es observar con quién comparten el viaje.

Más de la mitad de las y los turistas sénior vienen a Euskadi acompañados de su pareja. Destaca, entre los y las mayores de 59 años, el viaje en grupos compuestos exclusivamente por personas adultas (33%) y la poca presencia de grupos formados por personas adultas con niños/as y jóvenes. El número medio de componentes del grupo de viaje es de 4 personas (1 más que entre las y los turistas de entre 50 y 59 años).

9S. grafikoa. Turista seniorren bidaia-taldeetako kide-kopurua, taldekideen adinaren arabera (2019)  
 Gráfico 9S. Componentes del grupo de viaje sénior, en función de la edad de sus miembros, 2019



### 1.3.- Nola jasotzen duten informazioa, zer garraio bide erabiltzen duten, non hartzen duten ostatu, eta zenbat eguneko egonaldia egiten duten

#### Euskadira erakartzeko kanpainak eta aurreko informazioaren balioa

Turismoa sustatzeko kanpainak dira bidaiariak helmuga bat edo beste aukeratzera bultzatzen dituzten bideak.

Turistek hainbat bitartekoren bidez jasotzen dute Euskadi bisitatzera bultzatzen dituen informazioa. Bitarteko horien artean, azpimarratzekoa da ahotik ahorakoa, bai turista orokorren artean bai turista seniorren artean.

Onlineko informazio-bideak bigarren lekuan daude garrantziaren aldetik; hala ere, horien garrantzia oso ezberdina da turisten adinaren arabera: 10 puntu handiagoa da 50 eta 59 urte bitartekoaren artean (% 44) 59 urtetik gorakoaren artean baino.

Bestalde, azpimarratzekoa da 59 urtetik gorako turistek artikulu edo erreportaje turistikoaren bidez (% 28), bidaia-agentzietako langileen bidez (% 19) eta eskaintzen bidez jasotako informazioaren eragina.

### 1.3.- Cómo se informan, qué medios de transporte utilizan, dónde se alojan y cuántos días dura su estancia

#### Campañas de incitación y valor de la información previa

Las campañas de promoción turística son el medio a través del cual se incita a la persona viajera a elegir uno u otro destino.

Son varios los medios por los que las y los turistas reciben la información que les influye para visitar Euskadi, y entre ellos destaca tanto entre el total de turistas, como específicamente en el turismo sénior, el de "de boca en boca".

Los medios online ocupan el segundo lugar en importancia, aunque con distinta intensidad en función de la edad de las y los turistas que señala una diferencia de 10 puntos porcentuales a favor de las y los turistas de entre 50 y 59 años (44%).

Es notable la influencia que han recibido las y los turistas de más de 59 años a través de artículos o reportajes turísticos (28%), del personal de las agencias de viajes (19%) y de las ofertas (13%).

3S taula. Turista seniorrek Euskadi aukeratzeko izandako informazio-bideak (2019). Erantzun anitzeko galdera (baiezko erantzunen ehunekoa)

Tabla 3S. Medios en los que se han inspirado las y los turistas sénior a la hora de elegir Euskadi, 2019. Respuesta Múltiple (porcentaje de respuestas afirmativas)

Eragina duten informazio-bideak Medios que han influenciado	Guztira   Total	50-59 urte   De 50 a 59 años	60 urte eta gehiago   60 y más años
Lagunak, ezagunak, senideak   Amigas/os, conocidas/os, familiares	62,1	62,1	51,2
Online hedabideak (sare sozialak, blogak, web orriak...)   Medios online (redes sociales, blogs, webs, foros...)	42,2	43,6	34,4
Artikuluak, erreportaje turistikoak   Artículos, reportajes turísticos	22,0	21,5	27,5
Liburuak, eleberririk, filmak   Libros, novelas, películas	10,0	11,8	8,2
Bidaia-agentziak   Agencias de viajes	9,6	6,7	18,8
Turismo-azokak   Ferias de turismo	7,7	6,3	10,5
Eskaintza bat ikusi du   Ha visto una oferta	7,0	4,8	13,2
Beste bide edo faktore batzuk   Otros medios o factores	4,9	3,6	4,9
Tbko, irratiko edo prentsako iragarkiak   Anuncios en tv, prensa, radio	4,4	5,4	4,9

